



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados
Acta de Pleno

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak
Udalbatzarraren akta

AYT/PLE/6/2018

ORG1210PH

Código de validación/Balidazio kodea

602O530N4U466I200MJG



**2018KO EKAINAREN 29AN
UDALBATZARRAK EGINIKO EZOHIKO
BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIAK**

**ACUERDOS DE LA SESIÓN
EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL
PLENO DEL AYUNTAMIENTO EN FECHA
29 DE JUNIO DE 2018**

Asistentes/Etorritakoak

ALCALDE/ALKATEA

CARLOS TOTORIKA IZAGIRRE

CONCEJALES/ZINEGOTZIAK

MIGUEL LEDESMA PIÑEIRO

MIREIA ARGINZONIZ GARITAONANDIA

JOL GISASOLA GARAI

ARRITOKIETA ARAIZTEGI ARRIZABALAGA

SILVIA SERRANO GÓMEZ

JAVIER LOBATO TEDEJO

JESÚS MARTÍN DÍAZ

JUAN CARLOS ABASCAL CANDÁS

JOSE LUIS ARAUJO ARAUJO

BEATRIZ GÁMIZ MATA

JOSE RAMÓN GOMBAU IBARZ

PAUL YARZA AGIRREGOMEZKORTA

FERNANDO LECUMBERRI GAISÁN

JULEN DOMÍNGUEZ SÁNCHEZ

SECRETARIA/IDAZKARIA

MARIA DEL MAR ARRANZ OLMOS

Ausentes/Etorri ez direnak

HIART REDONDO URUEÑA

ALBERTO GARCIA ABAD SANCHEZ

Udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamazortzikoko ekainaren 29an goizeko hamarrek direnean, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196 eta 198 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, goian aipaturiko zinegotziak lehen deialdian bildu dira alkatea aukeratzeko. Bilkurara zinegotzi guztiei deitu

En el salón de sesiones de la Casa Consistorial, a las diez horas del día veintinueve de junio de dos mil dieciocho, en primera convocatoria, en cumplimiento de lo establecido en los artículos 196 y 198 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, y a los efectos de celebrar sesión extraordinaria

zaie legeak ezartzen duen legez.

Bilkura-burua Juan Carlos Abascal Candás behin behineko alkatea da, alkatetza dekretuz eskuordetu baitzaio bilkurak burutzeko ahala. Bilkuraren idazkari eginkizunetan Maria del Mar Arranz Olmos Korporazioaren idazkariak dihardu.

1. BILKURAN DAUDEN PERTSONEI EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO EDOZEIN GAIREKIN ZERIKUSIA DUEN EDOZER GAUZA GARRANTZITSU JAKITERA EMATEKO ALKATEAREN GONBIDAPENA

Bilkuran dauden pertsonei eguneko gai-zerrendako edozein gairekin lotutako edozein interes zuzen eta garrantzitsu jakitera emateko alkateak egin dien gonbidapenari pertsona horiek erantzun diote ez dela beraengan gertatzen abstenitzera behartzen duen inolako arrazoirik.

Bilkura publikoa da eta herritarrei irekia.

2. ALKATE-HAUTAPENA

Osoko Bilkura hau Carlos Totorika Izagirre jaunak bere alkate karguari 2018ko ekainaren 21ean uko egin izanaren ondorioa da, Udalbatzarrak ekainaren 26an onartu ondoren.

para la elección de Alcalde/sa, a la que han sido convocados todos los concejales en la forma legalmente establecida.

Está presidida esta sesión por Don Juan Carlos Abascal Candás, Alcalde Accidental, la facultad de presidir las sesiones fue objeto de delegación por Decreto de Alcaldía actuando de Secretario/a de la misma, el/la que lo es de la Corporación, Doña María del Mar Arranz Olmos.

1. INVITACIÓN A LAS PERSONAS ASISTENTES A QUE COMUNIQUEN CUALQUIER INTERÉS RELEVANTE QUE PUDIERA EXISTIR EN RELACIÓN CON CUALQUIERA DE LOS ASUNTOS INCLUIDOS EN EL ORDEN DEL DÍA DE LA SESIÓN

A la invitación del Alcalde para que las personas asistentes a esta sesión comuniquen si tienen un interés relevante en relación con cualquiera de los asuntos incluidos en el orden del día, responden que no concurre en ellas causa alguna que les obligue abstenerse.

La sesión es pública y abierta a la ciudadanía.

2. ELECCIÓN DE ALCALDE/SA

Esta sesión plenaria es consecuencia de la renuncia a la condición del Alcalde de Don Carlos Totorika Izagirre, presentada el día 21 de junio de 2018 y aceptada por el pleno de la Corporación del día 26 de junio del presente.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acta de Pleno

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren akta

AYT/PLE/6/2018

ORG12I0PH

Código de validación/Balidazio kodea
602O530N4U466I200MJG



Jarraian alkatea hautatzeari ekin zaio eta, horretarako, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196 eta 198 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, hautagai izan daitezke alderdi bakoitzaren zerrendaburu izan ziren ondorengo zinegotziak dira. Aipaturiko zerrendak 2015eko apirilaren 22ko BAOn argitaratu ziren.

Zerrendaburuak alkate izateari uko eginez gero, zerrendan hurrengo dagoena izango litzake hautagai, hautagaitzari ere uko egiten ez badio.

Hautagaiak, bada, ondoko hauek dira:

Acto seguido se procede a la elección de Alcalde/sa, a cuyo efecto, de acuerdo con la normativa establecida en los artículo 196 y 198 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, pueden ser candidatos/as para la Alcaldía los/as concejales/as que, encabezando sus respectivas listas a elecciones a concejales. Estas listas fueron publicadas en el B.O.B. de 22 de abril de 2015.

En el caso de renuncia a la condición de Alcalde pasará el siguiente en la lista, excepto que renuncie a su candidatura.

Los candidatos son los siguientes:

Nombre del/de la candidato(a)/Alkategaiaren izena	Grupo político/Alderdi politikoa
Juan Carlos Abascal Candás	PSE-EE/PSOE
Paul Yarza Aguirregomezcorta	EH-Bildu
Jol Gisasola Garai	EAJ/PNV
Javier Lobato Tedejo	Se puede Ermua Ahal Da
Fernando Lecumberri Gaisán	PP
Julen Domínguez Sánchez	IRABAZI

Guztiek beraien hautagaitzari eusten ote dioten galdetu zaienean baietz erantzun dute.

Bertaratu diren zinegotziek isilpeko boto-txartel bidez eman dute botoa eta, zenbaketa egin ondoren, emaitza ondorengoia izan da.

Se pregunta si todos ellos mantienen sus candidaturas, a lo que contestan afirmativamente.

Los/as concejales/as asistentes proceden a la votación por papeleta secreta y, efectuado el recuento de los votos emitidos, se obtiene el resultado siguiente:

Nombre del/de la candidato(a)/Alkategaiaren izena	Votos válidos/Baliodun botuak
Juan Carlos Abascal Candás	6
Paul Yarza Aguirregomezorta	2
Jol Gisasola Garai	0
Javier Lobato Tedejo	1
Fernando Lecumberri Gaisán	0
Julen Domínguez Sánchez	1

GUZTIRA EMANDAKO BOTOAK 15
BOTO ZURIAK 5

TOTAL VOTOS EMITIDOS 15
VOTOS EN BLANCO 5

Zinegotziek emandako botoen gehiengo osoa hautagaietatik inork lortu ez duenez, udal Talde Sozialistaren hautagai den Juan Carlos Abascal Candás izan da alkate aldarrikatua.

No habiendo obtenido ninguno de los candidatos la mayoría absoluta de los votos de los/as concejales/as, es proclamado Alcalde el/la candidato/a Don Juan Carlos Abascal Candás, del Grupo Municipal Socialista.

Bera da udal hauteskondeetan botorik gehien lortu zuen hautagai-zerrendaren buru.

Él encabeza la lista más votada en las elecciones municipales.

Udal idazkariak alkate-izendapena onartzen duen ala ez galdetu dio, eta hark baietz erantzun duenez, alkate aldarrikatua izan da. Bere karguaz momentuan jabetu da, baina lehenago alkate karguaren betebeharrak fidelki eta Erregearenganako leialtasunez beteko dituela eta Konstituzioa, Estatuaren oinarritzko araua izaki, gorde eta gordearaziko duela zin egin du.

Es requerido/a por el/la Secretaría, para que manifieste si acepta o no el nombramiento y, expresando su aceptación es proclamado Alcalde/sa, tomando inmediatamente posesión de su cargo, previo juramento o promesa prestada personalmente, de cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Alcalde/sa con lealtad al Rey y de guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del estado.

Carlos Totorika Izagirre jaunak makila eman dio Juan Carlos Abascal Candás alkateari eta, hitza hartuz, eskerrak eman dizkie zinegotziei, bere aldeko botoa emanez berarengan jarri duten konfiantzarengatik.

El/la Alcalde/sa Don Juan Carlos Abascal Candás recibe de Don Carlos Totorika Izagirre la "makila", e interviene y agradece en primer lugar, a los/as concejales/as, la confianza que han depositado en él a la hora de haber apoyado con su voto su investidura como Alcalde/sa



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acta de Pleno

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren akta

AYT/PLE/6/2018

ORG1210PH

Código de validación/Balidazio kodea
602O530N4U466I200MJG



Alkate hautatu berriak hitza hartu eta honako mintzaldia eskaini du:

“Buenos días. Egun on danori, adiskideok.

Guztiz harro nago Ermuko alkate izan ahal izateaz, eta nahi eta espero dut herri honek merezi duen mailan egotea, jaiotzen ikusi ninduen eta, urte askoz modu altruistan herriko kolektiboekin lan eginez, baloreetan heziz, ahalegindu naizen herri honen mailan.

Daukadan hoberena emateko konpromisoa hartzen dut: denbora, ilusioa eta gure Ermua herriari bultzada berri bat emateko ahalegina.

Harro nago herri honetaz; nire gurasoak, beste asko bezala, ilusio handiz etorri ziren Kantabriatik hona lan egitera eta etorkizuna eraikitza, ziurgabetasun eta beldur handiz, bai, baina aukera askorekin aldi berean.

Ondo hartu zituzten pertsonekin topo egin zuten hemen, eta guztiek batera bizikidetza, ahalegin eta lan-eredu bat eraiki zuten, egoera zaila zen arren.

Erabat harro nago Ermuarra izan eta Ermuan bizitzeaz.

Gaur guztiz garrantzitsuak diren baloreetan hezi ninduten nire gurasoek, eta eskerrak ematen dizkiet horregatik: elkartasunean, berdintasunean, zintzotasunean, umiltasunean, ahaleginean, lanean, hurkoarekiko eta, bereziki, ezberdinarekiko errespetuan, ingurumenarekiko errespetuan, eta

de Ermua.

El recién elegido Alcalde, toma la palabra y pronuncia el siguiente discurso:

“Buenos días, egun on danori, amigos y amigas

Es para mi un orgullo poder ser Alcalde de Ermua y espero y deseo estar a la altura de un municipio que me vio nacer y por el que he trabajado durante muchos años de manera altruista colaborando con los colectivos del pueblo, educando en valores. Me comprometo a dar lo mejor de mi mismo, mi tiempo, ilusión y esfuerzo en dar un nuevo impulso a nuestro municipio Ermua. Me siento orgulloso de un pueblo en el que mis padres, como otros muchos, vinieron de Cantabria, con mucha ilusión, a trabajar y a construir un futuro con muchísimas incertidumbres y miedos pero a la vez con muchas oportunidades. Aquí se encontraron con personas que supieron acogerles y todos ellos y ellas constituyeron un ejemplo de convivencia, de esfuerzo y trabajo ante la adversidad. Me siento muy orgulloso de ser y de vivir en Ermua.

Fui educado y por ello se lo agradezco profundamente a mi padre y a mi Madre en valores que creo que son absolutamente relevantes en los tiempos que corren y que son la solidaridad, la igualdad, la honestidad, la humildad, el esfuerzo, el trabajo, el respeto al prójimo, pero sobretudo al diferente, el respeto al

enplegua, bizi-kalitatea, berdintasuna eta elkarbizitza nagusi izan behar diren etorkizunean pentsatuz.

Gure gobernu-ekintzaren oinarritzko osagai bilakatu behar dute baloreok, guztiontzako izan behar duen gobernu-ekintza bat, diziplina anitzeko gizarte batean, non gutariko bakoitzak ezberdin pentsatu, lehentasun diferenteak eduki eta antzera pentsatuta ere arazoak konpontzeko modu ezberdinak eratuko lituzkeen.

Iritzi, pentsamendu edota jokabide ezberdin horiek gizarte konplexua eratzen dute, eta ez da egia, zorionez! guztiok berdin pentsatzen duen osotasun baten zati garela.

Adostasuna bilatzea izan behar dugu helburu. Hori ez da erraza inola ere, eta epe luzerako estrategia edukitzea behar du, norantz joan nahi dugun jakitea, gure nahi batzuk baztertu eta amore ematen jakitea, eta guk pentsatzen duguna pentsatzen ez duen harekin bat egiteko moduko pentsamolde irekia edukitzea.

Harro nago, bai, historian zehar hobetzeko eta birsortzeko gai izan den herri honetakoa izateaz: altxatzeko gai izan zen, frantziarren inbasioa zela-eta, 1794ko abuztuan Konbentzioko gerran erre eta txikitu zutenean; altxatzeko gai izan zen Gerra Zibilean bere historia idatziaren zati handi bat galdu zuenean, 80. urteetan krisialdi ekonomiko handia gainditzeko gauza izan zen, gure burdinola-industri ehunaren zati handi bat lurreratu zitzaigunean, %25eko langabezia tasa ekarri zigula; ETArri ezetz esan eta bere ahotsa altxatzeko gai izan zen, terrorismoaren kontra eta askatasun eta

medioambiente y pensando en nuestro futuro con empleo, calidad de vida, igualdad y en convivencia. Valores que deben convertirse en elementos esenciales de nuestra acción de gobierno.

Una acción de gobierno para todos y todas, en una sociedad multidisciplinar donde todos y cada uno de nosotros piensa de manera distinta, tiene diferentes prioridades y aunque piense de manera parecida articularía de manera distinta las acciones para la solución de las problemáticas.

Esa diferencia de pareceres, pensamientos o maneras de actuar dibujan una sociedad compleja donde no es cierto que todos formemos parte afortunadamente de un todo que piensa de igual manera.

La búsqueda de acuerdos debe ser nuestro objetivo, para nada fácil, y exige tener estrategia a largo plazo, hacia donde queremos ir, saber ceder a parte de nuestras pretensiones y tener una mentalidad abierta que empatices con el que no piensa exactamente lo mismo que nosotros.

Me siento orgulloso de pertenecer a un municipio que ha sido capaz de superarse y de reinventarse a lo largo de la historia. Que fue capaz de levantarse cuando fue quemada y arrasada durante la guerra de la convención en agosto de 1794 con motivo de la invasión francesa, Que fue capaz de levantarse cuando perdió una buena parte de su historia escrita durante la guerra civil. Que fue capaz de superar una gran crisis económica en los años 80 donde se nos cayó buena parte de nuestro tejido industrial de forja originándonos un 25 % de desempleo. Que fue capaz de levantar su voz diciendole no a ETA, luchando por la



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acta de Pleno

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren akta

AYT/PLE/6/2018

ORG1210PH

Código de validación/Balidazio kodea
602O530N4U466I200MJG



duintasunaren alde borrokatuz.

Gaur gure erronka, altxatzea eta mundu osoa jasaten ari den ekonomia-finantza- eta balore-krisialdi larria gainditzea da. Ziur naiz lortzeko gauza izango garena inor bakarrik utzi gabe. Ilusioa, gogoia eta estrategia dauzkagu horretarako, enpleguaren, aberastasun- eta balio-sorkuntzaren alde alde apustu egiteko, emaitza zailtasun gehien dituztenei lagunduko dieten gizarte-politiken bitartez banatu ahal izateko. Aberastasuna sortuz bakar bakarrik mantendu ahal izango ditugu ongizate-gizartea eta kalitatezko zerbitzu publikoak. Horiek gero eta gehiago egon behar dute hiritarrei zuzenduak, kalitatea eta eraginkortasuna hobetuz eta ezer onik eransten ez duen burokrazia ezabatuz. Zerbitzu publiko eraginkor eta kalitatezkoak behar ditugu.

Gaur aldaketa gobernatu behar dugu, zeren egun hiritar eta arduradun politiko legez bizi dugun egoerak ikuspuntu orotatik: ekonomikoki, sozialki, laboralki, teknologikoki... ezaugarriren bat badu aldaketa handiak sortzen ari direla da.

Horrek arrisku eta aukera gehiago sortzen du, baina batez ere beldurra eta segurtasun-gabezia sortzen ditu ikuspuntu politikotik, eta gertatzen ari dena ulertzea eta horretara moldatzea exijitzen digu gu guztioi, pertsona legez eta politiko legez, alderdi politiko eta erakunde publiko legez, aldaketa garai handia bizitzen ari garelako.

Globalizazioaren menpe, arriskuak eta lana galtzeko beldurrak sortzen dira pertsonengan, eta nazionalismo atzerakoien edo populismoen dinamika politiko eta sozialak gizartean. Horrek "gorde dezala

libertad y la dignidad frente al terrorismo.

Hoy el gran reto es levantarnos y superar la grave crisis económica, financiera y de valores que está sufriendo el mundo entero. No tengo dudas que seremos capaces de hacerlo y lo haremos juntos sin dejar a nadie en la estacada. Tenemos para ello ilusión, ganas, y una estrategia para apostar por el empleo, por la generación de riqueza y valor para poder distribuirla a través de políticas sociales que ayuden a los que más dificultades tienen. Sólo a través de la generación de riqueza se puede mantener el estado del bienestar y unos servicios públicos de calidad. Servicios públicos que deben estar cada vez más orientados a los ciudadanos/as mejorando la calidad y la eficiencia, eliminando burocracias que nada les aporta. Servicios públicos eficientes y eficaces y de calidad.

Hoy tenemos que gobernar el cambio por que si algo define el escenario que vivimos como ciudadanos y como responsables políticos es que se están produciendo grandes cambios desde casi todas las perspectivas: económicas, sociales, laborales, tecnológicas, lo que aumenta la generación de riesgos y oportunidades pero sobre todo, desde el punto de vista político genera miedo e incertidumbres que nos exigen a todos nosotros entender lo que está pasando y adaptarnos , como personas individuales y como políticos , como partidos y como instituciones públicas por que vivimos un gran cambio , un cambio de época

Marcado por la globalización que genera en las personas riesgos y miedos a perder el empleo y en la sociedad dinámicas políticas y sociales de nacionalismos retrógrados o populismos

bakoitzak bere burua” politketara garmatza, non lehenengoa nork bere buruz babestea dagoen, eta gero besteena.

Garai aldaketa hori, halaber, IKTen ezarpenak markatua dago. Horiek asko lagun diezagukete erabiltzaile eta norbanako moduan, bai gure enpresa eta erakundeen eraginkortasuna eta lehiakortasuna areagotzeko, baina gaitasun profesional berrietara egokitu beharra eskatzen du, sarri aldatzeko beldurra sortuz eta ahalegindu beharra beti.

Esaten ari naizen aldaketa horren baitan kultur aldaketak daude, emakumeak arlo guztietan duen eginkizun berria kasurako. Berdintasunak egun ditugun ereduak aztertu eta, bikote- zein erakundemailan, berriak ezarri beharra suposatzen du, emakumea beste eginkizun batzuetara: lan-, politika- edo erakunde-arlokoak esaterako, dedikatu dadin lagundu eta bide emateko.

Eta, jakina! hor dugu zahartzearen erronka ere, egungoa baztertu eta eredu ezberdina diseinatzea eskatzen duena, eta zerbitzu berrien bitartez -IKT teknologien bidez asko-, etxean bizitzen jarraitzea lagunduko duena.

Kontutan izan behar dira baita ere ingurumenaren jasagarritasuna eta ekonomia zirkularra, produktuen bizitzazikloa eta horiek balio ez dutenean sortuko dituzten hondakinetan nahitaez birpentsatzera garmatzana. Etorkizuneko belaunaldiei ingurumen hobea utzi beharrean pentsatu beharra.

Ezin ditugu ahaztu Gobernu Ona, gardentasuna eta hiritarren partaidetza, erronka berriak izan ere, eta behar beharrezkoak ustelkeriari aurre egin eta gizartearen eskakizun berri eta arrazoizkoei

que nos llevan a políticas del sálvese quien pueda donde lo primero es lo nuestro y luego lo de los demás.

O por la implantación de las TICs que pueden ayudarnos como usuarios de las mismas tanto como individuos o para mejorar la eficiencia y competitividad de nuestras empresas e instituciones . Pero nos exigen también adaptarnos a nuevas competencias profesionales , que en muchas ocasiones generan miedo al cambio y siempre esfuerzo.

O por cambios culturales como el nuevo papel de la mujer en todos los campos desde un plano de igualdad que requiere revisar e implementar nuevos modelos a nivel de pareja o institucionales para acompañar y posibilitar su dedicación a otras tareas por ejemplo en el campo laboral, político o institucional.

Y por supuesto el reto del envejecimiento que requerirá diseñar un modelo distinto al actual que facilite el seguir viviendo en casa a través de nuevos servicios y muchos de ellos mediante las nuevas tecnologías TICs.

O la sostenibilidad medioambiental y la economía circular que obliga a repensar en el ciclo de vida de vida de los productos y de los residuos que generarán una vez dejen de ser usados. Pensar en dejar un medioambiente mejor a nuestras generaciones venideras.

Y por supuesto los nuevos retos de Buen Gobierno, transparencia y participación ciudadana como respuestas imprescindibles a la corrupción y a las nuevas y razonables exigencias sociales.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acta de Pleno

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren akta

AYT/PLE/6/2018

ORG12I0PH

Código de validación/Balidazio kodea

602O530N4U466I200MJG



erantzuteko. Hiritarrek beraien dirua zertan gastatzen den jakitea eskatzen, exijitzen digute, eta iritzia eman nahi dute gainera hiriaren edozein proiekturen inguruan.

Beraz, hausnarketa sakona egin ondoren estrategia sortu beharra dago aldaketa hori bideratzeko, berrikuntza-estrategia bat, horrenbeste aldaketa nolabaiteko metodologiaz kudeatzeko.

Estrategia horretan bitartekoak, epeak eta baliabide naturalak lehenetsi beharko dira, urriak ERRONKA HANDI horietan EMAITZAK lortzeko.

BAINA ESTRATEGIA HONEN OSAGAIRIK GARRANTZITSUENA PERTSONAK DIRA.

Egitura malguagoekin, pertsonen gidatutako taldeekin eta haiengandik hoberena lotzen dutela, motibatuz, haztera bultzatuz, eta pertsonak hazten diren heinean hasten dira taldeak ere, eta horiekin batera antolakundea eta gizartea bera ere bai azken finean. Pertsonen gehiago ematen dute gustura daudenean, motibatuta daudenean. Horrek guztiak KULTURA-ALDAKETA exijitzen du antolakundearen egitura osoan, BELDURRAK, LARRITASUNAK eta EROSOTASUN EGOERAK AUKERA BIHURTUZ, LEHIAKORTASUN TEKNIKO LANDUZ, LEHIAKORTASUN TEKNIKORIK GABE EZ BAITAGO BERRIKUNTZARIK. Horregatik jarrera positiboak behar dira, bizitzan zehar ikasiz joatea eta hobetzeko ilusioa.

Garrantzitsua da politikaren eta erakundearen izen ona, ongi irabazia, galtzeko zorian dagoenean publikotasunaren balioa azpimarratzea; EPE LUZERAKO ESTRATEGIAZ,

Los ciudadanos nos piden, nos exigen saber cómo se gasta su dinero y además quieren opinar, lógicamente, sobre cualquier proyecto de ciudad.

Por ello tras una intensa reflexión es preciso crear una estrategia para el cambio, una estrategia de innovación para gestionar tantos cambios con cierto método.

Una estrategia priorizando los recursos, el tiempo que como los recursos naturales son escasos para conseguir RESULTADOS en los GRANDES RETOS.

LO MAS IMPORTANTE DE ESTA ESTRATEGIA SON LAS PERSONAS:

Con estructuras más flexibles, con equipos que lideran personas y que consiguen lo mejor de ellas, motivándolas, haciendo con ello que crezcan y con ello los equipos, con ello la organización y con ello la sociedad Las personas aportan más cuando están a gusto, cuando están motivadas. Todo ello exige un CAMBIO CULTURAL en toda la estructura de la organización, sustituyendo LOS MIEDOS, ANGUSTIAS Y ESTADOS DE CONFORT POR OPORTUNIDADES DE MEJORA. TRABAJANDO LA COMPETENCIA TECNICA. SIN COMPETENCIA TÉCNICA NO HAY INNOVACIÓN. Por ello son necesarias actitudes positivas, aprendizaje a lo largo de toda la vida e ilusión por mejorar.

Es importante en un clima de descrédito hacia la política y las instituciones bien ganadas a pulso, que pongamos en valor lo público, recuperemos la confianza de la ciudadanía con

GOBERNU ONEZ, HIRITARRAK
PARTAIDE EGINEZ ETA
GARDENTASUNEZ hiritarren konfiantza
berreskuratzea

**Duela gutxi lortu dugu Europar
Batasunak emaniko Bikaintasunaren
Europako Zigilua gobernu on gaitan.
Halako aintzatespenak pizgarri behar
dute izan ildo horretatik lanean
jarraitzeko.**

*Ekonomia kontuetan, dagoen
industria-ehunari laguntzen jarraitu nahi dut,
ekonomi ehunaren aniztasuna lantzen eta,
arloan publikoan zein pribatuan I+D+i
suspertzen. Lagundu beharra dago ilusioa
eta etorkizuna sortu nahi duten haiei,
besteentzako ere enplegua sortu ahal izan
dezaten. Beraz, pertsona ekintzaileei
laguntzen jarraituko dugu.*

*Aipatutako guztia eta
zeharkakotasuna ondoen islatzen dituen
proiektua udalerrian ezarritako zuntz
optikoaren sarea da eta izango da, auzotar,
saltegi edo enpresa guztietara iritsiz
operadore handiekin lehian aritzeko gauza
egin dituelarik.*

*4.0 industriari laguntzen, enpresa
teknologikoak, berritzaileak edota hiria zein
Udala produktu berriak probatzeko
laborategi izan dadin, eta jakina! hiritar
guztiek, lan egiteko zein ikasteko, abiadura
handia eduki dezaten laguntzen dutenak
gurera ekartzen jarraituko dugu.*

*Horrekin etorkizuneko enplegu berriak
landuko ditugu.*

ESTRATEGIA A LARGO PLAZO, BUEN
GOBIERNO, HACIENDO PARTICIPE A
LOS CIUDADANOS Y CON
TRANSPARENCIA.

**Recientemente hemos obtenido de
la unión europea el reconocimiento del
Sello europeo de la excelencia en
materia de buen Gobierno. Este tipo de
reconocimientos deben servirnos como
estímulo para seguir trabajando en esta
línea.**

En materia económica quiero seguir
apoyando al tejido industrial existente,
quiero seguir trabajando la diversificación
del tejido económico y vamos a seguir
apoyando la I+D+i en el campo público o
privado. Debemos ayudar a aquellas
personas con ilusión y ganas de crear su
propio futuro y que además puedan crear
empleo para los demás. Por tanto vamos a
seguir apoyando a las personas
emprendedoras.

El proyecto que mejor refleja todo lo
que he indicado así como la transversalidad
ha sido y seguirá siendo la red de fibra
óptica en el municipio llegando a todos los
vecinos, comercios o empresas y
compitiendo con las grandes operadoras.

Ayudando a la industria 4.0,
Atrayendo empresas tecnológicas,
innovadoras, o que permita que la Ciudad o
el Ayuntamiento sea un laboratorio de
prueba de nuevos productos y por supuesto
que todos los ciudadanos tengan alta
velocidad en su casa para trabajar o
estudiar. Trabajaremos por tanto los nuevos
empleos del futuro.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acta de Pleno

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren akta

AYT/PLE/6/2018

ORG1210PH

Código de validación/Balidazio kodea

602O530N4U466I200MJG



Gizarte-gaietan lehentasuna izango du zailtasun gehien duten haiei arreta egitea, krisialdian dauden familiei lagunduko dieten programen bitartez eta zerbitzu-zorro berria eraikiz.

Zahartzea ere gure erronkarik handienetakoa da, ez udalerrri honena bakarrik, eta hortxe egon nahi dut Ermuaren eraldaketan laguntzen, horrek dakartzan beharrian eta aukera berriak kontutan har daitezen eta erronka hori aukera bihurtzen.

Hor ditugu baita ere bestelako gizarte-berrikuntza batzuk ere: herria eta udala bera osasunerako eragile oinarritzotzat erabiltzea adibidez, gizarte-segmentu guztiak kirola eta soinketa egiteko herriko kaleez baliatu daitezen eta Udalaren kirol instalazioak eta kaleak horretarako erabil ditzaten.

Irisgarritasuna areagotzen jarraituko dugu, pertsonak, bereziki adinekoak, goiko auzoetara eta anbulatoria errazago eta askoz ere erosoago irits daitezen. Horretarako ditugu Santa Ana, San Roke, San Isidro eta anbulatorioko plan bereziak.

Etxebizitza- politika berriekin ere aurrera egingo dugu, tradiziozko etxebizitza libre eta babestutakoez gain, alokairuan hartu ahal izango diren babestutako apartamenduak sustatu ahal izan ditzagun, etxebizitzaren merkatura iristeko zailtasun gehien duten pertsonentzat (adineko pertsonak, gazteak...) askoz ere egokiagoak direnak.

Lomi Powerreko sustapenaren tankerako aparkaleku berriak sortzeko ere lanean jarraituko dugu, 24 orduz

En materia social, la atención a las personas con mayores dificultades seguirá siendo una de nuestras prioridades, a través de programas que ayuden a las familias en crisis y construyendo la nueva cartera de servicios.

El envejecimiento constituye uno de nuestros grandes retos no sólo de este municipio y quiero estar ahí ayudando a transformar Ermua para que se contemplen las nuevas necesidades y oportunidades que ello acarrea, convirtiendo este reto en una oportunidad.

Otras innovaciones sociales como utilizar la ciudad y los Aytos como agentes claves para la salud utilizando las propias calles de la ciudad para impulsar la actividad física de todos los segmentos sociales, utilizando las instalaciones deportivas del AYTO y las calles.

Seguiremos trabajando la accesibilidad como una herramienta que posibilite que las personas sobretodo mayores puedan acceder a los barrios altos y al ambulatorio de una manera mucho más cómoda como el plan especial de Santa Ana, San Roque, San Isidro y ambulatorio.

Y con nuevas políticas de vivienda donde además de los modelos tradicionales de vivienda libre y protegida podamos impulsar apartamentos en alquiler protegido muchos más adecuados a aquellas personas con mayores dificultades para acceder al mercado de la vivienda (personas mayores, jóvenes).

Vamos a seguir trabajando creando nuevas plazas de aparcamiento como la promoción de Lomi Power que posibilitará

txandakako udal aparkamendu bat izatea eta inguruko pertsonentzako aparkaleku-plazak edukitzea ahalbidetuz.

Asko dira, beraz, erronka eta desafioak eta hobe da ilusioz aurre egitea, erabakigarritasunez, elkar hartuta, aldatzeko beldurra, bakartasunaren eta “gorde dezala bakoitzak bere burua”ren larritasunak gaindituta.

Jakitera ematen dizuet gaurtik bertatik aurrera enpresari, sindikatu, kirol elkarte, kultur eta gizarte taldeekin bilduko naizela; auzoetara joango naiz haien lehentasunak eta beharrianak ezagutzera. Denei entzun egin behar diet guztiok elkar hartuta proiektu berri bat bultzatzeko.

Eskerrak eman nahi dizkiet nire guraso eta familiari harro sentiarazten nauten baloreetan: elkartasuna, berdintasuna, zintzotasuna, apaltasuna, ahalegina, lana eta errespetuan hezi nautelako. Eskerrak ematen dizkiet, halaber, bereziki zailak diren uneetan erakutsi duten nireganako ulerkortasunagatik, nahiz eta lidergoa eta politikan aritzea inoiz erraza izan ez den.

Aukera aprobetxatu nahi dut Carlos Totorikari eskerrak emateko, politiko moduan egin duen ahalegin eta erakutsi duen dedikazioagatik, terrorismoaren aurka eta askatasun eta duintasunaren aldeko borrokan erreferentzia izateagatik, ni neu ere partaide izan nauen strategiaren buruzagitza bere gain hartzeagatik, Ermuaren hiri-eraldaketa bideratzeagatik, baliabideak lehenetsiz eta gureak ez diren eskumenak izanik ere (enplegua, berrikuntza, berdintasuna eta eraldaketa digitala adibidez) gure herritarrentzat garrantzitsuak diren gaietan hitzak egintza bihurtzeagatik.

un parking municipal rotatorio 24 horas y plazas de aparcamiento para las personas del entorno.

Son por tanto muchos los desafíos y los retos que tenemos que abordar y es mucho mejor abordarlos con ilusión, con predeterminación, juntos, venciendo el miedo al cambio, la angustia de la soledad y el sálvese quien pueda.

A partir de hoy mismo, anuncio que voy a estar con empresarios, sindicatos, clubs deportivos, colectivos culturales y sociales. Voy a visitar los barrios para conocer sus principales prioridades y necesidades. Quiero escucharles para impulsar un nuevo proyecto todos juntos.

Quiero agradecer a mis padres y a mi familia su educación en unos valores de los que me siento muy orgulloso basados en la solidaridad, la igualdad, la honestidad, la humildad, el esfuerzo, el trabajo, el respeto. Quiero asimismo agradecerles su comprensión por esta dedicación mía a la política en un momento especialmente difícil. Aunque liderar y dedicarse a la política nunca ha sido fácil.

Quiero aprovechar para agradecer a Carlos Totorika, como político todo su esfuerzo y dedicación, liderando y siendo una de las referencias en la lucha por la libertad y la dignidad frente al terrorismo. Liderando una estrategia de la que he sido participe, posibilitando la transformación urbana de Ermua y priorizando los recursos y convirtiendo las palabras en hechos en materias que no son de nuestra competencia pero sí son importantes para nuestros ciudadanos como son el empleo, la innovación, la igualdad, la transformación digital.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acta de Pleno

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren akta

AYT/PLE/6/2018

ORG12I0PH

Código de validación/Balidazio kodea

602O530N4U466I200MJG



Eskerrak ematen dizkizuet zuetako bat eta bakoitzari, udal zinegotzioi, Ermuko herriaren alde lanean, inola ere erraza ez dena, ematen duzuen denbora eta dedikazioagatik, eta elkarrekin lan egiten jarraitzea gonbidatzen zaituztet, adostasunez eta desadostasunez, baina beti ere gure herritarrentzat hoberena denean pentsatuz.

Nire eskerrik zintzoena agertzen diot Ermuko herriari ere historian zehar beti erakutsi duen gaintitze-espirituarengatik, ulerkorra izateagatik, egin dituen ekarpenengatik, eta, zalantzarik ez dudan arren, bere konpromisoa eskatzera ausartzen naiz berriz ere, guztion artean herri jasangarriagoa, solidarioagoa eraikitzen jarraitzeko, non protagonista nagusia bizikidetzaz izango den.

Horregatik guztiagatik denok elkarrekin lan egitera gonbidatzen zaituzte.

Agur eta erdi, eta mila esker”.

Quiero agradecer a cada uno de vosotros y vosotras, a los concejales del Ayuntamiento, vuestro tiempo, dedicación en una labor para nada sencilla de trabajar por el pueblo de Ermua y quiero haceros la invitación para seguir trabajando juntos, con acuerdos, con desacuerdos pero pensando en lo mejor para nuestros ciudadanos.

Quiero agradecer al pueblo de Ermua su espíritu de superación a lo largo de la historia, su comprensión, sus aportaciones y me gustaría pedirles una vez más su compromiso del que no tengo ninguna duda para poder construir, entre todos, un municipio más sostenible, más solidario, en el que la convivencia sea su principal protagonista.

Por ello quiero haceros esta invitación a trabajar todos juntos.

Muchas gracias”.

**3. CARLOS TOTRIKA IZAGIRREK
PSE-EE(PSOE)REN HAUTAGAI-
ZERRENDAKO ZINEGOTZI
KARGUARI UKO EGIN IZANA
JASOTA UZTEA**

**3. TOMA DE RAZÓN DE LA RENUNCIA
FORMULADA POR CARLOS
TOTRIKA IZAGIRRE AL CARGO DE
CONCEJAL DE LA CANDIDATURA
PSE-EE(PSOE)**

BOZKETAREN EMAITZA

PSE-EE/PSOE: Aldekoak 6

EH Bildu: Aldekoak 2

EAJ/PNV: Aldekoak 3

Se puede Ermua Ahal da: Aldekoak 1

PP: Aldekoak 2

RESULTADO DE LA VOTACIÓN

PSE-EE/PSOE: A favor 6

EH Bildu: A favor 2

EAJ/PNV: A favor 3

Se puede Ermua Ahal da: A favor 1

PP: A favor 2

Irabazi: Aldekoak 1

Lehenengo erabakia:

"1. Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE) (PSE-EE/PSOE) alderdiaren hautagai-zerrendako Carlos Totorika Izagirrek bere zinegotzia karguari uko egin dionez gero, kargu hori hutsik dagoela adieraztea.

2. Aipaturiko bakantea Eskualdeko Hauteskunde-batzorde Nagusiari jakinaraztea, kargua Rosa María Cid Seara, Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE) (PSE-EE/PSOE) alderdiaren Ermuko zerrendako hurrengo hautagaiari esleitzuz, bakantea bete dezan".

Bilkura honetan aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkateak bilkura bukatutzat jo du 10:30an, eta nik, Idazkaria naizenez, guztiaren fede eman dut.

Akta honek zazpi orri dau(z)ka alde bietatik idatzita eta 630etik 644ra zenbakituta.

Irabazi: A favor 1

Primer acuerdo

"1º. Declarar la vacante de Carlos Totorika Izagirre producida por renuncia al cargo de concejal, de la candidatura del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE) (PSE-EE/PSOE).

2º. Notificar la vacante a la Junta Electoral Central al objeto de que esa administración electoral proceda a cubrir la vacante, atribuyendo el escaño al/a la candidato/a de la lista de la candidatura del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE) (PSE-EE/PSOE) por Ermua, Rosa María Cid Seara ".

No habiendo más asuntos a tratar, de orden del Alcalde se da por finalizada la sesión, levantándose la misma a las 10:39 del día de la fecha de todo lo cual como Secretaria doy fe.

Consta esta acta de siete folios, escritos por ambas caras, numeradas del 630 al 644.